



Lehiaren Euskal Agintaritzak lehen mailako figurak elkartuko ditu datorren azaroaren 26an, “Lehiaren Zuzenbidea eta erronka berriak futbol profesionalean pandemiaren aurrean” gaiari buruz jarduteko

Javier Tebas LaLigako presidentek eta Andreu Camps RFEFko idazkari nagusiak hartuko dute parte jardunaldian, beste batzuen artean

Finantza arloko fair play-ak eta ikus-entzunezko eskubideek zentratuko dituzte eztabaidarako bi mahaiak, San Mamesen egingo den eta Alba Urresolak eta Aitor Elizegik aurkeztuko duten jardunaldian

BILBON, 2020ko azaroaren 19an / Datorren ostegunean, azaroaren 26an, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) “Lehiaren Zuzenbide eta erronka berriak futbol profesionalean pandemiaren aurrean” jardunaldia antolatuko du. Finantza arloko fair play-a eta ikus-entzunezko eskubideak landuko dituen jardunaldian Javier Tebas LaLigako presidentek eta Andreu Camps RFEFko idazkari nagusiak hartuko dute parte, beste batzuen artean.

San Mameseko eraztun nagusian egingo den jardunaldiaren helburua futbolak jarduera ekonomiko gisa duen garrantzia agerian jartzea da. Oso sektore arautua da, eta, gainera, Lehiaren araudiari lotuta dago. Hori dela eta, jardunaldian zehar, Lehiak gai horri buruz egin dituen azken txostenak landuko dira.

Alba Urresola Lehiaren Euskal Agintaritzako presidentek eta Aitor Elizegi Athletic Clubeko presidentek, eztabaidarako mahaien aurreko aurkezpen instituzionala egingo dute.

Lehenengo mahaiak “Finantza arloko fair play-a futbol taldeetan COVIDaren eta haren ondorioen aurrean” gaian zentratuko da, eta hauek hartuko dute parte: Javier Tebas LaLigako presidentek; Jon Berasategi Athletic Clubeko zuzendari nagusiak; Juan Luis Crucelegui, Nazio Batuen Erakundeko Lehia Politiken eta Kontsumitzaileen Babes Saileko buruak.

Jardunaldiaren bigarren zatian "Ikus-entzunezko eskubideak" aztertuko dira, hauen partaidetzarekin: Andreu Camps Espainiako Errege Futbol Federazioko idazkari nagusia; Javier Tebas LaLigako presidentea; Maria Tato Espainiako Errege Futbol Federazioko Emakumeen Futboleko zuzendaria; eta Amaia Gorostiza Eibar S.A.D. Kirol Elkarteko presidentea.

“Lehiaren Zuzenbidea eta erronka berriak futbol profesionalean pandemiaren aurrean” jardunaldia streaming bitartez jarraitu ahal izango da kanal honetan:

<https://avceventosanmames.nirestream.com/>



Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketa ekonomikoei dagokienez.